



JESUS MARI LARRAMENDI

*ELA egoitza nagusia
Barrainkua, 13
48009 BILBO*

2012ko urtarrilaren 12a

Jose Maria Etxegaray Fernandez

Ertzaintzako Giza Baliabideen Zuzendaria

Zuzendari jn.

Erakunde honek jakin izan du 2011ko abenduaren 30eko Artezkaritza Kontseiluaren bileran Ertzaintzako 23. promozioako langileek, praktika aldiaren zein baldintzatan lan egingo duten berri eman zela.

Ertzaintzako historian lehenengo aldiz hiru berrikuntza garrantzitsu ematen dira, horietatik bik langile hauek aitortuak dituzten eskubideei zuzenki eragiten dietelarik:

- Ekainaren 11tik uztailaren 11 bitartean urteko oporrak lupertu behar izatearen ezarpena.
- Hiritar segurtasunatik berariazko osagarri ezberdina duten lan-postuetan eta lan-lekuetan praktikak egitea.
-

Abenduaren 27ko 438/2005 dekretuak, 2005, 2006 eta 2007 urteei dagokienez Ertzaintzako langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa onartzen duenak, eta egun indarrean denak, honako hau xedatzen du:

1. artikulua,- Langileen eremua

Lan-baldintzei buruzko akordio hau Ertzaintzako karrerako funtzionarioei aplikatuko zaie, jarduneko zerbitzuan eta bigarren jardueran daudenei, baita praktiketan dauden funtzionarioei ere, salbu eta beren beregi baztertuta badaude.

30. artikulua.- Oporrak

1.- Ertzaintzako kideek jarduneko zerbitzuko urte oso bakoitzeko gutxienez ordaindutako oporren hilabetearen luperketarako eskubidea dute, edo proportzioz dagozkien egunen luperketarako, lanean emandako denbora txikiagoa bada.

2.10.- Udaldia ekaineko lehen astelehenean hasi eta irailaren 30ean bukatuko da.



3.- Txanden ordu-araubidean, udaldian XL-X edo X-X motako oporretako bi aste lupertu ahalko dira. Udakoa ez den aldian, lupertzen ez den aste mota lupertuko da. Bestalde, uztailaren 17ko 4/1992 legeak, Euskal Herriko Poliziari buruzkoak, agintzen du:

71. artikulua

3.- Funtzionarioek, lanpostu bateko behin-behineko ihardunean dauden bitartean, lanpostu horri dagozkion lansari osagarriak, eta, beti ere, norbere graduari dagokion lan-izendapenagatiko osagarria jasoko dituzte.

Ondorioz ulertzen dugu oporraldiaren lupertze unea langilearen borondatearen arabera dela, eta eskaera egiteko epe-baldintzari buruz, berriz, lanean egotearen ehunekoa zenbat, gogokoagoak zein diren, etabar..., Ertzaintzako multzo osoarentzat berdinak dira, karrerako edo praktiketako funtzionario den bereizitasunik gabe.

Lan-postu eta lan-leku ezberdinetan zerbitzuak betetzeari buruz, berriz, berarizko osagarri berezia jasotzeko eskubidea dute baita Ertzaintzako praktiketako funtzionarioek ere, Lan Zerrendan hala aitortutako lan-postuak betetzen dituztenean, espezialitate ikastaroa duten ala ez kontuan izan gabe, hau hala da, abenduaren 16ko 298/1997 Dekretua, Ertzaintzako funtzionarioen ordainsariei buruzkoan ezarritakoaren arabera, 4/1992 Legearen 71.3 artikuluan agindutakoa betez. Egundaino egoera horretan egon den langileari hala aitortua izan zaio, berez.

Hartu dituzun erabakiak berraztertuko dituzula espero dugu, eta urratu diren eskubideen errespetua izateko eskaera ontzat izango duzulakoan.

Begirunez,

Jesus Mari Larramendi

ELA-Ertzaintzako Arduraduna